



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko abenduren 5a

147. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketak ezetsi ditu (6. or.).
- Foru Lege proiektua, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa ezetsi du (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du hezkidetza hezkuntzaren zutabeetako bat izatea, eta apustu egiten du heziketa afektibo-sexuala errealitate bat izan dadin Nafarroako ikastetxe guztietan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan lehenbailehen sor eta gara dezan banku publiko bat. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretu bidez arau ditzan zer baldintza higieniko-sanitario bete behar dituzten lehen mailako ekoizpenak eta hari lotutako jarduerak nahiz salmenta zuzena edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoa egiten duen nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi txiki bati lotutako nekazaritzako elikagaien eraldaketak eta merkaturatzeak. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko arau-aldaketa susta dezan, Zergadunaren Defendatzailearen zerbitzua eta figura sortzeko. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da gaixotasun endokrino-metabolikoen baheketza zabaldua ezar dezan, gutxienez ere gisa horretako hogeita bost gaixotasun sartuta. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gurasoei errespetu dakien beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza aukeratzeko eskubidea. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (10. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua kargutik kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoko buruaren dimisioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Hezkuntzako kontseilariak zergatik ez dituen gauzatu Departamentuko Ikuskaritza Zerbitzuko arduradun nagusiek aurkeztutako dimisioak. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko lanpostu hutsari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak 2018ari falta zaion denbora honetan Gurasoen Mahaiaren deialdia egiteari dagokionez darabilen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, 2018-2019 ikasturterako unibertsitateko irakaskuntza-beken deialdia argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Muga meategiko proiektuko errepideei aurkeztutako alegazioak direla-eta Geocalci enpresak emandako erantzunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

**Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia**

HITZAURREA

Hipoteka berme-eskubide erreal bat da, eta eratzen da ziurtatzearen bete eginen dela bete-behar bat –normalki, kreditu edo mailegu baten itzulketan–. Betebehar hori ordaindu ezean, titularrari ondasun higiezin baten balioa gauzatzeko eskubidea ematen dio, ordaindu gabekoaren ordainetan. Beraz, ondasun higiezin hori mailegua ematen duen pertsonaren edo entitatearen aldeko berme bihurtzen da, kreditu edo maileguaren ordainketa ziurtatzeko.

Eskubide erreal horrek ezaugarri berezi bat dauka: behar bezala eratuta egoteko, haren eskritura publikoa egin beharra dago, eta Jabetzaren Erregistroan inskribatu. Hori dela eta, eskritura

publikoa egitea funtsezko elementua da hipoteka-bermea duen maileguaren kasuan.

Begi bistakoa da hipoteken merkatua, oro har, eta etxebizitzena, bereziki, garrantzi handiko sektorea dela Nafarroako ekonomian, eta jende askorengan duela eragina. Hipoteka-bermea duten mailegu kontratuen formalizazioa gizartean ondorio eta garrantzi nabarmenak dituen merkataritzajarduera bat da.

Horrekin lotuta, komeni da gogoratzea Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak hiru modalitate desberdin hartzen dituela:

a) Kostu bidezko Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga, zeinak kargatzen baititu BEZa ordaintzen ez duten kostu bidezko ondare-eskurapenak.

b) Sozietateen Eragiketen gaineko Zerga, zeina aplikatzen baitzaie merkataritza-sozietateei eta horiekin parekatutako entitateei dagozkien zenbait eragiketari.

c) Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, zenbait egintzaren edo kontraturen formalizazio dokumentala zergapetzen duena, hala nola:

– Agiri notarialak; horien artean, eskriturak, aktak eta lekukotza notarialak.

– Merkataritza-agiriak, hala nola kanbio-letra eta harekin parekatuak.

– Agiri administratiboak; batez ere, erregistro publikoetako prebentziozko idatzoharrak.

Aurrekoaren arabera, esan daiteke Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga hau zerga dokumental eta formal bat dela, eta xede duela, besteak beste, hipoteka-maileguaren eskritura publikoaren agiri notariala zergapetzea. Horrela, hipoteka-bermea duen maileguaren eskritura

publikoa egiteak berekin dakar Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren sortzapena, agiri notarialen modalitatean.

Apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bateginaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, egintza juridiko dokumentatuen modalitateari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatean zergaren subjektu pasiboa ondasun edo eskubidearen eskuratzailerak da eta, halakorik ez badago, egintzak sustatzen edo eskatzen dituzten pertsonak, edo, noren interesaren alde ematen diren dokumentuak, pertsona horiek. 21. artikulua berak bigarren paragrafoan zehazten duenez, bermedun mailegua eratzeko eskrituren kasuan, eskuratzailerak mailegu-hartzailea dela ulertuko da. Beraz, Nafarroako legearen egileak argi ezarri du ezen, bermedun maileguak eratzeko eskrituren kasuan, mailegu-hartzailea dela subjektu pasibo. Eta nabarmendu behar da, halaber, foru arauak mailegu-eraketako eskritura aipatzen duela beraiaz, eta ez maileguarekin zerikusia duten beste eskritura batzuk, hala nola kitatzekoa. Horrez gain, bidezkoa da azpimarratzea Nafarroako foru arauak orokortasunez aipatzen duela bermedun mailegua, hipoteka-bermeaz aipamen berezirik egin gabe. Horrekin esan nahi da hipotekaz bestelakoak diren beste berme erreal batzuk ere hartzen dituela bere barrenean.

Azken asteetan epaileen ebazpen eta erabaki kontrajarri batzuk izan dira. Alde batetik, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Bigarren Atalak, urriaren 16ko 1505/2018 epaian, urriaren 22ko 1523/2018 epaian eta urriaren 23ko 1531/2018 epaian, baliogabetu egin zuen zergari buruzko Estatuko Erregelamenduen 68. artikuluko 2. apartatua; horren testua eta arestian aipatutako foru arauaren 21. artikuluko bigarren paragrafoa (Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bategina) antzekoak ziren. Apartatu hori baliogabetearen ondorioz, erabateko iraulketa gertatu zen hipoteka-mailegu bat eratzeko Estatuan ordaindu beharreko zergari dagokionez: ordutik aurrera, subjektu pasiboa mailegua ematen duen pertsona edo entitate izan behar zen.

Nabarmendu beharra dago arau egoera oso desberdina dela Estatuan eta Foru Komunitatean, Auzitegi Gorenak Estatuko erregelamenduzko arau bat baliogabeteak ez duelako eraginik Nafarroako Foru Komunitateko legearen balio juridikoa, Nafarroako legea bertako Parlamentuaren adierazpen subiranoa delako, esleiturik dauzkan tributu eskumenak osotara baliatzearen ondorioz.

Halere, eta aurrekoa ukatu gabe, bistan da epai horietatik eratorritako baliogabete-ondorioek zalantzak eta segurtasun juridikoaren falta areagotu dituztela hipoteken merkatuan, onartezinak izateraino areagotu ere. Hori gutxi balitz bezala, hiru aste geroago, 2018ko azaroaren 6an, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Osoko Bilkurak erabaki zuen mailegu-hartzailea izatea berriro ere, Estatuan, hipoteka-bermea duten maileguen eskritura-formalizazioaren gaineko zergaren subjektu pasiboa.

Amaitzeko, azaroaren 8ko 17/2018 Errege Dekretu-legeak Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga aldatu du Estatuan, eta ezarri mailegu-emailea izanen dela subjektu pasiboa hipoteka-bermea duen maileguaren eskrituren kasuan.

Estatu-mailan arau nahiz jurisprudentzia arloan gertatu diren aldaketa azkar horiek herritarren artean sortu duten egonez eta harridura ikaragarriko egoera horri bukaera emate aldera, foru lege honek aldaketak egiten ditu apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bateginaren 21. eta 35. artikuluetan.

Horrela, Nafarroako araua hein batean Estatu-ko arauaren edukiarekin bat etor dadin, 21. artikuluko bigarren paragrafoan ezartzen da mailegu-emailea izanen dela subjektu pasiboa, bermedun mailegua eratzeko eskrituren kasuan. Hortaz, Foru Komunitatean ordura arte indarra zuen legezko araua aldatu egiten da, subjektu pasiboari dagokionez. Aitzitik, gainerako testua bere horretan uzten da; hau da, Nafarroako foru araua bermedun mailegua eratzeko eskriturei buruzkoa da.

Horrekin batera, 35.I.B) artikuluari atal berri bat eransten zaio, 30. zenbakiduna, xede honekin: mailegu-hartzaileak salbuespen subjektiboa dueneko zenbait kasu aurrerantzean ere kargatik salbuesirik egotea, aipatutako 21. artikuluan egingdako aldaketak horietan eraginik izan gabe.

Halaber, 35.I.B) artikuluari 31. apartatu berria gehitzen zaio, kontuan izanik foru lege honek xedetzat duela mailegu-emailea izatea zergaren subjektu pasiboa, bermedun mailegua eratzeko eskriturek dokumentatzen dituzten egintza juridikoei dagokienez.

Horrez gain, 35.I.A) artikuluen c) letra kentzen da, salbuespen subjektibo horrek ez daukala-ko funtsatze tekniko eta politikorik.

Egoki da aipatzea xedapen indargabetezaileraren edukia. Alde batetik, ohiko formula erabiltzen da; esan nahi baita indargabetezailerak

foru lege honetan xedatutakoaren kontrako maila bereko edo beheragoko arauetan sartuta dauden xedapen guztiak. Bestetik, zehaztapen bat gehitzen da; alegia, kreditu kooperatibentzat indargabetu egiten dela Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 27.1.b) artikuluan jasotzen den zerga-onura, entitate horiek mailegu-emaile direneko bermedun mailegua eratzeko eskrituren kasuan.

Halaber, azken xedapenetako lehena gehitzen da, ezartze aldera ezen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak dakarren tributu zorra, agiri notarialen modalitatean, ez dela kengarria izanen Sozietateen gaineko Zergan, betiere Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bateginaren 21. artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuetan; hau da, mailegu-emailea subjektu pasiboa denean bermedun mailegua eratzeko eskrituretan.

Amaitzeko, esan behar da ezen, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagokionez, arau aldaketek eragina izanen dutela foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetan; hots, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera. Zehazki, legea argitaratu eta biharamunetik aurrera formalizatzen diren bermedun maileguen eskritura publikoei eraginen diete.

Nabarmendu behar da, halaber, asmoa dela ahalik eta azkarren egitea foru lege honen tramitazioa, kontuan hartuta zer eduki duen eta zer-nolako den konpondu nahi duen egoera. Horretarako, behin Nafarroako Gobernuak foru lege proiektua onetsi ondoren, Nafarroako Parlamentuan tramitatu da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren VI. tituluko III. kapituluko 4. atalean xedatutakoarekin bat. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 158. artikulua bide ematen du proiektuak zuzenean eta irakurketa bakarrean tramitatzeko Parlamentuaren osoko bilkuran. Foru lege proiektu honek bete egiten ditu artikulua horretan ezarritako betebeharrak (proiektuaren izaera dela-eta komenigarria izatea, edo haren formulazio errazak horretarako aukera ematea), laburra eta funtsatze errazekoa izateak agerian uzten dutenez. Beste alde batetik, arestian esan denez, neurria lehenbailehen abian jartzea ezinbestekotzat jotzen da hipoteken merkatuan dauden zantzak eta segurtasun juridikoaren falta azkar eta eraginkortasunez desagerrarazteko.

**Artikulu bakarra.** Aldatzea Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetarako efektuekin, testu hau izanen dute apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko testu bateginaren ondoko arau hauek:

Bat. 21. artikulua.

“21. artikulua.

Ondasunaren edo eskubidearen eskuratzailerak izanen da subjektu pasibo, eta, haren ezean, galdatzen edo eskatzen dituzten pertsonak, edo haien onura jasoko dutenak.

Bermedun mailegua eratzeko eskrituren kasuan, mailegua ematen duen pertsona edo entitatea hartuko da subjektu pasibotzat”.

Bj. 35.l) A) artikulua. c) letra kentzea.

Hiru. 35.l.B) artikulua. 30. eta 31. apartatuak gehitzea.

“30. Bermedun mailegua eratzeko eskriturak, mailegu-hartzailea aurreko A) letran sartutako pertsona edo entitateetakoren bat denean.

31. Aurreko 13. apartatuko b) letrako b' paragrafoan eta 26. apartatuan jasotako salbuespenak ez dira aplikagarri izanen baldin eta, 21. artikulua- ren bigarren paragrafoan xedatuaren arabera, subjektu pasiboa mailegu-emailea bada”.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arau- indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honen maila bereko edo beheragoko arauetan jasota egonik foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Bereziki, indargabetu egiten da kreditu-kooperatibentzat Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 27.1.b) artikuluan jasotzen den zerga-onura, entitate horiek mailegu-emaile direneko bermedun mailegua eratzeko eskrituren kasuan.

**Azken xedapenetan lehenengoa.** Sozietate- en gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea aldatzea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera hasten diren zergaldietarako efektuekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren

28ko 26/2016 Foru Legearen 23.1 artikuluari m) letra berria gehitzen zaio:

“m) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren tributu zorra, egintza juridiko dokumentatuen modalitateko agiri notarialeki dagokienez, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bateginaren 21. artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuetan”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Araugin-tzarako gaikuntza.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta egikaritzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean bertan aurreikusitako efektuekin.

---

## **2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.**

### *OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETAK EZETSI DITU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko azaroaren 22an, ezetsi egin ditu 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Foru Lege proiektua, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko azaroaren 22an, ezetsi egin du zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du hezkidetza hezkuntzaren zutabeetako bat izatea, eta apustu egiten du heziketa afektibo-sexuala errealitate bat izan dadin Nafarroako ikastetxe guztietan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du hezkidetza hezkuntzaren zutabeetako bat izatea, eta apustu egiten du heziketa afektibo-sexuala errealitate bat izan dadin Nafarroako ikastetxe guztietan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuaren ustez, behar-beharrezkoa da hezkidetza hezkuntzaren zutabeetako bat izatea, eta apustu egiten du hezkuntza afektibo-sexuala errealitate bat izan dadin Nafarroako ikastetxe guztietan, giltzarria baita bizitza sexual eta afektibo osasuntsua, poisitiboa, librea eta arduratsua sustatzeko, jarrera desdoituak, matxistak eta diskriminatzaileak ekiditeko eta

gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean eta erantzukidetasunean hezteko, ezagutzatik, errespetutik eta bizikidetzatik abiatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Hezkuntza Departamentua, Osasun Publikoaren Institutua eta Berdintasunerako Institutua hezkidetzaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren arloan egiten ari diren lana, eta pozik azaltzen da Skolae programa ezarri delako.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri eraginkorrak ezar ditzan eta lanean jarrai dezan hezkuntza afektibo-sexualaren arloan, egungo arau-esparruak ezarritako bidean, halako moduan non Nafarroako ikastetxe guztietako ikasleek aukera berberak izanen baitituzte”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan lehenbailehen sor eta gara dezan banku publiko bat.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan lehenbailehen sor eta gara dezan banku publiko bat”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak erabaki du Foru Komunitatearen garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzura lan eginen duen Banku Publikoa sortu beharra dagoela Nafarroan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du helburu hori lehenbailehen gara eta bete dezan”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretu bidez arau ditzan zer baldintza higieniko-sanitario bete behar dituzten lehen mailako ekoizpenak eta hari lotutako jarduerak nahiz salmenta zuzena edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoa egiten duen nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi txiki bati lotutako nekazaritzako elikagaien eraldaketak eta merkaturatzeak.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko azaroaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretu bidez arau ditzan zer baldintza higieniko-sanitario bete behar dituzten lehen mailako ekoizpenak eta hari lotutako jarduerak nahiz salmenta zuzena edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoa egiten duen nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi txiki bati lotutako nekazaritzako elikagaien eraldaketak eta merkaturatzeak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru dekretu bidez arau ditzan zer baldintza higieniko-sanitario bete behar dituzten, malgutasun neurriekin egokiturik, lehen mailako ekoizpenak eta hari lotutako jarduerak nahiz salmenta zuzena edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoa egiten duen nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi txiki bati lotutako nekazaritzako elikagaien eraldaketak eta merkaturatzeak,

Nafarroako Foru Komunitatearen esparrukoak direnean.

2. Nafarroako Parlamentuak, landa-ekoizpen txikiaren aldeko apustua egiten baitu, Nafarroako Gobernua premiatzen du honako hauek jaso ditzan foru dekretu horretan eta foru dekretua erregelamendu bidez garatzen duten arau teknikoetan eta produktu nahiz produktu-multzo bakoitzari buruzkoetan:

i. Elikagai-kantitate mugatuak eraldatu edo elaboratu eta salmenta zuzenean edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoan merkaturatu nahi dituzten ekoizle txikiek eta nekazaritzako elikagaien egileek bete beharreko baldintza, betebeharrak eta erantzukizun orokorrak.

ii. Salmenta zuzenaren aldeko hautua egiten duten ekoizle txiki horientzako berriarazko baldintzak: elikagai-jardueren erregistro autonomikoari jardueraren hasiera aurretiaz komunikatzea, urteko jardueraren deklarazioa egitea eta jardunbide higieniko egokien gida aplikatzea.

iii. Merkaturatze-zirkuitu laburraren aldeko hautua egiten duten ekoizle txiki horientzako berriarazko baldintzak, pertsona, entitate edo bitarteko-



establezimendu bakarrekoak badira: erregistro autonomikoari jardueraren hasiera komunikatzea, jardunbide higieniko egokien gidak aplikatzea eta osasun arloko ikuskapenen aldeko txostenak edukitzea.

iv. Urteko bolumena mugatzea, bai eraldatze-elaboratzeari bai merkaturatzeari buruzkoa, produktu edo produktu-multzo bakoitzerako taxutzen diren arau teknikoetan zehazten denarekin bat.

v. Egokitzapenak ahalbidetzea ekipamenduetan eta instalazioetan, ekoizleek beren lehengaiak eraldatzen edo elaboratzen dituzten horietan, zuzeneko salmentarako edo merkaturatzerako zirkuitu laburreko salmentarako.

vi. Muga geografiko berezietan edo ustiatzearen eraikuntzaren, diseinuaren eta ekipamenduaren arloko mugei erantzuten dieten egokitzapenak ahalbidetzea.

vii. Kontrol-puntu kritikoaren aplikazioa sinplifikatzea eta, kasua bada, higiene-jardunbide egokiak ordezkatzeko, ekoizpen-mota honi aplikatzen heldu diren malgutasun-irizpideei jarraikiz (produktu edo produktu-mota bakoitzerako prestatzen diren gidetan zehaztuko dira).

vii. Betekizun horiek berariazko produktuetarako edo produktu-multzoetarako betekizun higieniko-sanitarioen egokitzapenari buruzko berariazko arau teknikoetan zehaztuko dira, eta foru agindu bidez onetsiko dira.

ix. Malgutasun-irizpideen aplikazioa errazte aldera, higiene-jardunbide egokiak taxutuko dira, Administrazioak eta landa-ingurunekeko ekoizpenean eta eraldaketan inplikaturako sektoreek batera ezarritakoaren arabera.

x. Elikagaien arloko jardueren osasun erregistro autonomikoa sortzea; besteak beste, jasoko du zuzeneko salmenta egiteko edo merkaturatze-zirkuitu laburretan saltzeko betekizun higieniko-sanitarioen malgutzea aplikatuko zaien ekoizle-prestatzaileen zerrenda.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki honetan jasotzen diren edukiak garatuko dituen foru dekretuaren proiektua taxutu dezan, erabaki hau argitaratzen denetik hiru hilabeteko epean”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko arau-aldaketa susta dezan, Zergadunaren Defendatzailearen zerbitzua eta figura sortzeko.**

### **OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko azaroaren 22an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko arau-aldaketa susta dezan, Zergadunaren Defendatzailearen zerbitzua eta figura sortzeko”. Mozioa Nafarroako Alderdi Sozialista talde

parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2018ko urriaren 23ko 126. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da gaixotasun endokrino-metabolikoen baheketa zabaldua ezar dezan, gutxienez ere gisa horretako hogeita bost gaixotasun sartuta.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko azaroaren 22an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da gaixotasun endokrino-metabolikoen baheketa zabaldua ezar dezan, gutxienez ere gisa horretako hogeita bost gaixotasun sartuta". Mozioa José

Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu zuen eta 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gurasoei errespetatzen beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza aukeratzeko eskubidea.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko azaroaren 22an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gurasoei errespetatzen beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza aukeratzeko eskubidea. Mozioa

Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu zuen eta 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Hezkuntza Departamentuko Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua kargutik kentzeari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuko Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua kargutik kentzeari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán

Higuera jaunak 9-18/PES-00171 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko elduna: María Solana Arana

Euskararen Sustapen eta Didaktika Bulegoko buruak bere karguan dimisioa eman zuen arrazoi pertsonalengatik; horrenbestez, berak eskatuta utzi du bulegoko burutza. Dimisioaren eskabidea erantsi dugu.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko elduna: María Solana Arana

---

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoko buruaren dimisioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoko buruaren dimisioari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00172 galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoko buruak arrazoi pertsonalengatik eman zuen dimisioa.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuako ele-duna: María Solana Arana

## **Galdera, jakitekoa ea Hezkuntzako kontseilariak zergatik ez dituen gauzatu Departamentuko Ikuskaritza Zerbitzuko arduradun nagusiek aurkeztutako dimisioak.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea Hezkuntzako kontseilariak zergatik ez dituen gauzatu Departamentuko Ikuskaritza Zerbitzuko arduradun nagusiek aurkeztutako dimisioak. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán

Higuera jaunak 9-18/PES-00173 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Kargu-uzteak eraginkor eginen dira egokitzat jotzen den unean, behin ikasturtearen abiatze optimoa amaitzen denean eta ikuskatzaileen kidegorako oposizioaren prozesua eta ikuskatzaile berrien praktika-aldien prozesua ixten direnean. Hartara, lanpostuak bete ahalko dira lanposturako egokienak diren pertsonekin.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuako ele-duna: María Solana Arana

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko lanpostu hutsari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko lanpostu hutsari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00174 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Interesdunari joan den irailaren 6ko Osoko Bilkuran azaldu zitzaion bezala, gaiarengatik adierazitako interes berezia dela-eta eskerrak eman ondoren, Idazkaritza Tekniko Nagusia idazkari

tekniko nagusiaren karguan dagoen pertsonaren figura baino gehiago da.

Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko idazkari tekniko nagusiaren lanpostuak bete gabe jarraitzearen arrazoiek zerikusi handia dute Departamentuan lan egiten duten pertsonak pairatu behar izaten duten presioarekin. Horrenbestez, lanpostu hutsa beteko da horretarako modua dagoenean.

Idazkari tekniko nagusiaren kargua ez da goikargu bat Hezkuntza Departamentuaren organigramaren barruan. Izan ere, idazkari tekniko nagusiek zerbitzuko zuzendarien maila dute, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak zehazten duen bezala.

Azkenik, lanpostu hori Administrazioako langile funtzionarioei baizik ezin zaie eskaini; hori dela eta, modu horretan egitea beste erremediorik ez dago.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuoko elduna: María Solana Arana

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak 2018ari falta zaion denbora honetan Gurasoen Mahaiaren deialdia egiteari dagokionez darabilen aurreikuspenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak 2018ari falta zaion denbora honetan Gurasoen Mahaiaren deialdia egiteari dagokionez darabilen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18-PES-00175 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Mahaiak 2018an egindako lehen bilera 2018ko maiatzaren 15ean izan zen. Aldian behin Mahairako deia egiten jarraituko da, gai-zerrenda eta guzti. Gai-zerrenda deialdiarekin batera jakinaraziko da, eta kontuan hartuko dira une bakoitzean jorratu beharreko gaiak eta Mahaiko kideek aurkeztu dituzten proposamenak.

Iruñean, 2018ko irailaren 27an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuak ele-duna: María Solana Arana

## **Galdera, 2018-2019 ikasturterako unibertsitateko irakaskuntza-beken deialdia argitaratzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2018-2019 ikasturterako unibertsitateko irakaskuntza-beken deialdia argitaratzeari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00176 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2018/2019 ikasturterako beken deialdi orokorra joan den irailaren 6ko ebazpen batez onetsi zen (607/2018 Ebazpena) eta irailaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen; data horretan zabaldu zen, hain zuzen ere, beka eskatzeko epea, 2018ko urriaren 31ra artekoa.

Egungo deialdiak aurreko deialdiaren ildoari jarraitzen dio. Izan ere, araubide iragankorrari eusten zaio ikasketak 2016ko abenduaren 31 baino lehen hasi zituzten Nafarroako Unibertsitateko ikasleentzat –hau da, orain 3. eta 4. mailan ari direnentzat–, bai eta gradu bikoitzeko edo PCEOk (Irakaskuntza Ofizialen Baterako Programazioa) 5. eta 6. mailan ari direnentzat ere. NUPen matrikulatzeko baldintzak bete baina Nafarroako Unibertsitatean matrikulatzeko hautua egin duten Nafarroako Unibertsitateko 1. mailako ikasleei beste edozein unibertsitatearako beka eskatzen dutenei ematen zaion matrikula-beka ematen zaie. Aurten, horrek eragina du, halaber, aurreko urtean 1. mailan matrikulatu ziren eta

orain 2. mailan ikasten ari direnengan ere. Espediente akademikoarengatik laguntzari eusten zaio, 1. graduako ikasleentzat, eta aurtan 2. gradu egiten dutenei ere zabaltzen zaie. Harrerako familien kasurako, jaso da, familian hartutakoa adinduna denean, pertsona hori familia-unitatean integratutako kideatzat har dadila deialdi honen ondoreetarako.

Halaber, beka edo laguntza batengatik jaso daitekeen gehieneko zenbatekoa gaurkotu da, 10.302,6 eurokoa izateraino.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuoko elduna: María Solana Arana

## **Galdera, Muga meategiko proiektuko errepideei aurkeztutako alegazioak direla-eta Geoalcali enpresak emandako erantzunari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Muga meategiko proiektuko errepideei aurkeztutako alegazioak direla-eta Geoalcali enpresak emandako erantzunari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du Geoalcalik sustatutako Mina Muga proiektuaren bide-segurtasunari, errepideen kostuari, mantentze-lanei eta ingurumenari buruz (9-18-/PES-00177). Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusitik helarazi dioten informazio hau ematen dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak:

1. Geoalcali enpresak erantzun al dio Gobernuari Nafarroako Gobernuak gai honetan egindako alegazioei dagokienez?

Une honetara arte, Nafarroako Gobernuak ez du gai honi buruzko inongo dokumentaziorik jaso.

Ingurumen-eraginaren ebaluaziorako espedientearen izapidetzea Trantsizio Ekologikorako Ministerioan (MITECO, lehen MAPAMA zena) egin ari da.

Behin sustatzaileak proiektuaren testu bateginaren dokumentazioa aurkeztuta, MITECOk informazio publikoko eta administrazio publiko ukituei kontsulta egiteko izapideak egin zituen, Ingurumen Ebaluaziorari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. eta 37. artikuluetan ezarritakoak. Fase horretan, Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak txostena eman zuen, Nafarroako errepideen sarea dela-eta kontsulta egin baitzitzaion, eta hartan, proiektuaren ezarpena onesteko baldintza gisa, zenbait zehaztapen betetzea ezarzen zuen.

Gaur egun, espedientearen izapidetzea zabalik dago, eta MITECO da "espedientearen analisi teknikoko" fasearen erantzulea; fase hori, izan ere, 21/2013 Legearen 40. artikuluan ezarrita dago. Gaur arte, MITECOk egindako azterketak berekin ekarri du dokumentazio osagarriaren errekerimendu bat egitea, proiektuaren zenbait alderdi direla eta. Sustatzaileak testu bategin bat aurkeztu du Ministerioan, eta azken horrek 2018ko uztailean txostena eskatu dio Nafarroako Gobernuari subsidentziari, sismikotasunari eta gatz-hondakinaren kudeaketari buruzko dokumentazio berria dela eta. Gaur arte ez dago jasota beste inongo errekerimendurik egin denik, ez eta galderan aipatutako alderdiei buruzko dokumentazioa aurkeztu denik ere.

2. Baiezkoan, zein izan da erantzuna?

Oraindik ere ez da dokumentazioa jaso.

3. Ezezkoan, zein urrats eginen ditu edo zein neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak gai garrantzitsu hau dela eta?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak MITECOri jakinarazi dio proiektuak errepide-sarean eta ibilgailuen trafikoan izanen duen inpaktuari buruzko



alderdiak aztertu behar direla. MITECOK aipatu du ezen une honetara arte errekerimenduaren xede izan diren alderdiak aztertzen ari direla, eta behin haien ebaluazioa ebatzita, gainerako gaiak aztertzen jarraituko dela; gai horien artean daude galdera parlamentarioan planteatu direnak.

MITECOren eskumena da erabakitzea nola sartuko diren espedientean informazio publikoko aldian eta ukitutako administrazioari kontsultak egiterakoan jasotako alderdiak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko irailaren 28an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea